

**ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA GRADUA
2022-2023 IKASTURTEA**

GRADU AMAIERAKO LANA



**GASTEIZ-FORONDAKO AIREPORTUAREN
EGINKIZUN ESTRATEGIKOA**

**Egilea: Iker Tubia Diez
Tutorea: Jorge Tejedor Núñez**

Gasteiz, 2023ko uztaila

AURKIBIDEA

1. LABURPEN EXEKUTIBOA	4
2. SARRERA	5
3. TESTUINGURU TEORIKOA	7
3.1. Karga garrioaren kontzeptua eta sailkapenak	7
3.1.1. Aireko karga vs gainerakoak	9
3.1.2. Abiazioa	10
3.1.3. Aireko logistika	11
4. Gasteizko hiria	12
4.1. Kokapena eta beste ezaugarriak	12
4.2. Gasteiz-Foronda aireportua	13
5. Salgai-trukaketako fluxu handienak: inportatzaile eta esportatzaile nagusiak	16
5.1. Aireko karga konpainiak	16
5.2. Karga Forondan	17
5.3. DHL	18
5.3.1. DHL Historia	19
5.3.2. DHL FORONDAN	21
6. Covid 19k Eragina	23
6.1. Covid 19 eragina munduan	23
6.2. Covid 19 eragina Espainia mailan	23
6.3. Foronda aireportua krisi honen aurrean	24
7. FORONDA GAUR EGUN	30
7.1. Lehiakide nagusiak (ZARAGOZA)	30
7.2. INBERTSIOAK ETA AIREPORTUAREN INPUT-OUTPUT	32
7.2.1. Inbertsioak	32
7.2.2. Input-Output	34
7.3. Zona frankoa eta bestelako modeloak	36
7.4. AMIA analisia	37
8. Proposatutako etorkizuneko plan estrategikoa	39
8.1. Metodologia	40
8.2. Eskuratutako informazioaren analisia	40
8.3 Foronda-Gasteiz aireporturako Plan Estrategikoa	42
8.4. Plan Estrategiko honen eragin ekonomiko eta estrategikoa	45
9. Konklusioak	47
10. Bibliografia	49

1. ERANSKINA: Elkarrizketa operazio zuzendariarekin	55
2. ERANSKINA: Elkarrizketa DHLko HUB Logistikoko langile batekin	58

IRUDIEN AURKIBIDEA

3.1. Irudia: Salgaiak errepidez garraiatzeko korridore nagusiak.....	8
3.1.3. Irudia: 2020an salgai-bolumen handiena zuten Espainiako aireportuak	11
4.2.a. Irudia: Forondako terminal berriaren proiektuaren plano nagusia.....	14
4.2.b. Irudia: Antonov 225 hegazkinaren karga-upeltegia.....	14
5.3.1. Irudia: Deutsche Post DHL Group-ko egitura korporatiboa.....	19
6.3. Irudia: Boeing 747, 100 tona material sanitario baino gehiago kargatuta Forondan.....	27
7.1. Irudia: Inditexetik salgaien mugimendua Zaragozako aireportuan	30
7.3.1. Irudia: European Air Transport (EAT) Leipzig's LEJ hub:	37
8.3. Irudia: Karga-plataformaren etorkizuneko birmoldaketaren planoak.....	43

TAULEN AURKIBIDEA

3.1. Taula: Garraio mota bakoitzaren abantailak eta desabantailak	7
5.1. Taula: Aire-karga konpainia nagusiak	16
5.2. Taula: Aire-kargarako beste azpiegiturak eta bertan jarduten duten enpresak	18
6.3.a Taula: Karga-trafikoak Espainiako aireportuetan 2019an	25
6.3.b. Taula: Karga-trafikoak Espainiako aireportuetan 2020-ko otsailean	25
6.3.c. Taula: Karga-trafikoak Espainiako aireportuetan 2020-ko martxoan	25
6.3.d. Taula: Karga-trafikoak Espainiako aireportuetan 2020an	26
6.3.e. Taula: Karga-trafikoak Espainiako aireportuetan 2020-ko maiatzean	28
6.3.f. Taula: Eragiketa-trafikoak Espainiako aireportuetan 2020-ko maiatzean	28
6.3.g. Taula: Karga-trafikoak Espainiako aireportuetan 2022an	29
7.2.1.a Taula: AESAko inbertsioen sailkapena eta hurrengo urteetarako programazioa.....	33
7.2.1.b. Taula: Documento De Regulación Aeroportuaria	34
7.2.2.a. Taula: Aireportu bateko Input-output-ak	35
7.2.2.b. Taula: Forondarako diseinatutako Input-output taula	35
7.4. Taula: Forondako aireportuaren AMIA analisisa	38

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

5.2. Grafikoa: Karga-eragiketa konpainia bakoitzeko	17
5.3.1. Grafikoa: DHL Parcel Iberia SL-ren diru-sarrera	20
5.3.2. Grafikoa: Forondan mugitutako karga totala urtero	22
6.3. Grafikoa: Merkataritza-trafikoak konpainia bakoitzeko	26
7.1. Grafikoa: Zaragozako aireportuko salgai-trafikoaren bolumena.....	31

1. LABURPEN EXEKUTIBOA

Salgaien garraiobideek funtsezko zeregina dute ekonomia globalean, eta produktuen eta materialen mugimendu eraginkorra eta segurua errazten dute distantzia aldakorretan. Garraiobide horiek salgaiak garraiatzeko berariaz diseinatutako sistemak eta ibilgailuak dira, bai estatuan bai nazioartean. Lurreko metodo zaharretatik hasi eta garraio multimodaleko sare sofistikueteraino, salgaiak garraiatzeko baliabideak aldatu egin dira, merkataritza globalaren eskari gero eta handiagoi erantzuteko.

Aireko karga igorpen azkarreko eta eraginkorreko metodo bat da, denbora laburrean ondasunak distantzia luzeetara garraiatzea ahalbidetzen duena, hau da, salgaiak, produktuak edo materialak aireko ingurunean zehar garraiatzea, karga-hegazkin espezializatuak erabiliz. Garraio mota hau asko erabiltzen da nazioarteko merkataritzaren industrian, non enpresek herrialde batetik bestera salgaiak azkar eta seguru mugitu behar baitituzte. Larrialdi-egoeretan ere erabiltzen da, hala nola, hornidura medikoak eta elikagaiak hondamendi naturalek eragindako eremuetara bidaltzean.

Euskadiko hiriburuak, Gasteizek, historia industrial aberatsa du XX. mendearen hasieran, eta garapen handia izan du urteetan zehar. Hiriko industriaren ezaugarri nagusietako bat aniztasuna da, industria-sektore ugari biltzen baititu: automobilgintza, industria metalurgikoa, elektronika, elikadura, energia eta logistika. Sektorre horien guztien artean, eta salgaien garraioarekin lotutako azpiegitura giltzarri gisa, **Gasteiz-Forondako aireportuari** buruz hitz egin behar da.

Hori dela eta, GRAL hau Forondako aireportuan zentratuko dugu, salgaien mugimenduan dagoen estatuko 4. aireportua baita eta Europan garrantzitsuenetakoa, besteak beste, bere kokapen geostrategikoagatik eta 40 urte baino gehiagoko historian zehar egin diren eragiketa bereziengatik.

Lan honen helburu nagusia da lurraldean bere karga-operazioekin duen **zeregin estrategiko** garrantzitsua nabarmentzea, kapitulu bakoitzean alderdi desberdinak nabarmenduz, proposatutako bigarren mailako helburuak betez eta helburu nagusia indartuz. Lan hau amaitzeko, etorkizunari begirako azterlan bat egin dugu eta etorkizunerako **Plan Estrategiko** bat proposatu dugu, jasotako bibliografia osoarekin gidatuz, txosten eta gainerako dokumentuekin batera, eta bi elkarrizketa eginda eragiketa-zuzendariari eta aireportuko **DHL**ren konpainiako hub bezeroen-arreta arduradunari.

Plan honetako konklusio nagusiak hauek dira:

- Etorkizunean gaitasun estrategikoari etekin handiagoa ateratzeko, funtsezkoa izango da ibilbideak gehitzea, aireontzi handiagoak ezartzea, instalazioak hobetzea, bestelako faktoreekin batera.
- Konponketak egiteko hangar bat eraikitzeak itxura berria eman diezaioke Forondari, eta, horrekin batera, VIAPen antzeko industria-eremuen garapena. Alde horretatik, gure proposamena azaldutako ZEE eredu bat aireportuaren inguruan diseinatzea da.
- Horrek, beste jarduera eta garraiobideekiko sinergiak ahalbidetuko lituzke, baita jarduera-bolumen handiagoak erakartzea eta jarduera aeronautikoarekin ezinbestean lotuta ez dauden operadore ekonomiko berriak erakartzea ere.

Hitz gakoak: Salgaien garraioa, Aireko karga, Gasteiz-Forondako aireportua, zeregin estrategikoa, Plan Estrategikoa.

2. SARRERA

Gaur egun, aire-kargak iraultza ekarri du merkataritzaren eta logistikaren mundura, irtenbide azkar, eraginkor eta fidagarria eman baitu maila globaleko salgaiak garraiatzeko. Zeruen bidez, karga-hegazkinak mezulari arin bihurtzen dira, eta produktu baliotsuak, funtsezko hornidurak eta karga kritikoa eramaten dituzte urruneko helburuetara.

Muga geografikoak eta denborazkoak gainditzeko duen gaitasunarekin, aireko karga munduko ekonomiaren funtsezko osagai bihurtu da, kontinenteak lotuz, nazioarteko merkataritza bultzatuz eta premiazko bidalketen eskaria betez.

Aire-kargak garrantzi handia du Espainiako ekonomian eta logistikan, estrategikoki Europar kokatuta dagoen eta nazioarteko merkataritzan presentzia handia duen herrialdea baita. Espainiak aireportu-sare moderno eta ondo konektatua du, eta, ondorioz, aireko kargaren operazio-zentro garrantzitsua da.

Espainiako karga-aireportu nagusia Adolfo Suárez aireportua da (Madriren). Europako aireportu erabilienetako bat da, eta Espainiako nahiz nazioarteko aire-merkataritzarako sarrera gisa balio du, baina ez da bakarra, ildo berean garrantzitsuak diren beste aireportu batzuk Barcelona-El Prat aireportua, Zaragozako aireportua eta Foronda-Gasteizko aireportua dira (AENA, 2023a).

Espainiako aire-kargak industria eta sektore ugari hartzen ditu: produktu freskoak eta galkorrak, farmazia-produktuak, automobilak, elektronika eta moda. Karga-hegazkinen garraio azkar eta eraginkorraren ahalmenari esker, Espainiako enpresek beren produktuak nazioarteko merkatuetara esporta ditzakete, baita salgaiak inportatu ere, barne-eskaria hornitzeko.

Salgaien esportazioaz eta inportazioaz gain, Espainiako aire-kargak ere eginkizun erabakigarria du turismo-sektorean. Aireko kargako hegazkinek industria turistikorako beharrezkoak diren hornidura eta ekipamendu mota batzuk garraiatzen dituzte, hala nola elikagaiak, edariak, kirol ekipoa eta eraikuntzako materialak.

Espainiako aire-kargaren sektoreak ere ekarpen nabarmena egiten dio ekonomiari eta enpleguari. Zuzeneko eta zeharkako enplegua sortzen du logistikan, garraioan, biltegien kudeaketan eta aduanan, eta horrekin lotutako garraio- eta zerbitzu-enpresen hazkundera sustatzen du.

Betidanik izugarri gustuko izan dut hegazkingintza, eta zehatzago, nire hiriko aireportuan egiten diren operazioak, horregatik Forondako aireportuan dagoen karga jardueraren inguruan GRAL hau osatzea erabaki dut.

Horregatik, lan hau egiteko argi neukan Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan eskuratutako ezagutzak aplikatu eta zabaldu nahi nituela nik benetan interes handia nuen zerbaitetara.

Era berean, maila pertsonalean askoz gehiago ikastea azpiegiturari eta egiten diren eragiketei buruz, eta lan hori egin izan ez balu, ziurrenik ezagutuko nukeen zerbait.

Era berean, maila pertsonalean Forondaren inguruan ezagutza bereganatzeko eta bestelako zalantzak argitzeko aukera aprobetxatu nahi izan dut; izan ere, lan hau egin izan ez banu, seguru asko inoiz ez nukeen hainbeste informazio interesgarri eta pertsonalki nituen galdera askori hainbeste erantzun lortu.

GRAL honen **helburu nagusia**, *“Gasteiz-Forondako aireportuaren eginkizun estrategikoa eta haren historian zehar nazioarteko merkatuan izan duen karga-jarduera aztertzea da”*.

Horretarako, eta gauden globalizazioaren eta hazkunde interkonektatuaren garaia kontuan hartuta, lana hainbat kapitulutan banatuko dugu, hainbat alderdi aztertuz. Horrela, azterketa zabalago bat lortuko dugu, eta lanaren bigarren mailako helburuetan jarri ahal izango dugu arreta, karga-konpainia nagusietan, aireportuko lehiakideetan, Covid-19k jardueran izan duen eraginean...

Lehendabizi, testuinguru teoriko bat osatuko dugu, non aire-kargaren oinarriak, garrantzia eta onurak aztertuko ditugu, garraio- eta logistika-sistema globalaren funtsezko oinarri gisa, garraibide orokorretatik hasita, eta pixkanaka aire-bidean sartu arte.

Horren ondoren, Gasteiz hiria eta bere garrantzi industrial eta ekonomikoa aurkeztuko ditugu, Forondako aireportua (lan honen protagonista nagusia) abiapuntu hartuta, ezaugarri nagusiak deskribatuz, 40 urte baino gehiagoko historiarekin batera, hori guztia gaia testuinguruan kokatzeko eta hurrengo ataletan hitz egingo dugun guztia aintzat hartzeko.

Ondoren, mundu osoko karga-operadore nagusiak azalduko ditugu, eta ondoren, gure aireportuan eta konpainia nagusian (DHL) zentratuko gara.

Funtsezko kapitulu batekin jarraituko dugu lanean, COVID-19aren pandemiaren ondorioen azterketa zabala egiteko. Gaur egungo momentura iritsita, AMIA bat diseinatuko dugu, non aireportuaren barne- eta kanpo-azterketa egingo dugun, egindako inbertsioez, lehiakideez eta kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuez hitz eginez.

Hori guztia, Forondako aireporturako etorkizuneko Plan Estrategiko baten proposamenean oinarrituko garen lanaren azken zatiari bide emateko. Hainbat iturritatik gidatuz, arrazoitu egingo dugu zergatik uste dugun etorkizuneko plan hori Forondarentzat egokiena dela eta zer eragin izan dezakeen gizartean, batez ere hurbileko industrian.

Lan hau garatzeko erabilitako metodologiari dagokionez, batez ere merkataritza-garraioaren garrantziari buruzko artikuluak aurki ditzakegun plataformekin, Forondako aireportuari eta bere lehiakideei buruzko tokiko eta estatuko egunkari nota askorekin eta AENA agentziak egiten diren eragiketen kopuruari eta oso interesgarriak diren bestelako informazioei buruz argitaratzen dituzten dokumentuekin lan egin dugu.

Amaitzeko, Plan Estrategiko bat diseinatzeari begira, harremanetan jarri gara aireportuko eragiketa-zuzendariarekin, karga-sailarekin eta DHLko HUBko langile batekin elkarrizketa bat egiteko. Horrela, zalantzak argitu ahal izan ditugu eta plan hori eraikitzeko funtsezko elementuak kontuan hartu ditugu, guztia ahalik eta egingarrien gera dadin.

Ondorengo kapituluan, kontzeptu teorikoetan oinarrituko gara lehen aipatu dudan bezala, kargaren garraioa testuinguruan jartzeko eta analisi zabal eta interesgarri honi bide emateko.

3. TESTUINGURU TEORIKOA

3.1. Karga garrioaren kontzeptua eta sailkapenak

Gaur egun, garraioa bere osotasunean elementu giltzarria da, munduko puntu guztiak bere mota eta bide ezberdinen bidez konektatzen dituena.

Garraioaren definizioa desplazamendua eta komunikazioa helburu dituen prozesu multzoa da (Gutierrez, 2012) eta horiek gauzatzeko, hainbat garraibide mota erabiltzen dira sare jakin batzuetatik zirkulatzen dutenak.

Horregatik esan dezakegu, elementu garrantzitsu honek, hiru azpimultzotan sailka daitekeela: Helburuen, ibilgailuen eta azpiegituren arabera.

Hasteko eta helburuen artean, ekonomikoak, sozialak eta politikoak ditugu (Perez, 2023):

- Eginkizun ekonomikoen artean ohikoenak direnak, funtsezko faktore bat da ekoizpena desplazatzeko prozesuan, bai biztanleria leku batetik bestera mugitu ahal izateko, bai materialak trukatzeko.
- Eginkizun sozialen artean, arrazoi kulturalak, zientifikoak eta munduen harremanak sustatzekoak aurki ditzakegu.
- Eginkizun politikoaren artean, biztanleriaren sustapena eta estrategia politikoak indartzea dira nagusi. Beste aldetik, garraio mota bakoitzaren funtzionamendua bermatzeko azpiegitura desberdinak erabiltzen dira, hala nola, errepideak, nabigazio-bideak, semaforoak, radarrak, kontrol dorreak, elektrizitateko kableak, errailak...

Sailkapen horiek kontuan hartuta, azpimarratzekoa da garraio eta azpiegitura guztiak gainerakoekin osatzen dira eta ezinbestekoak dira bakoitzaren funtzionamendu onerako. Adibide bat jarritz, beste herrialde bateko produktu bat erosteko online plataformak erabiltzen baditugu, litekeena da produktu hori fabrikatzen denetik gure etxeetara iristen den arte garraio bakoitzean garraiatua izatea.

Kontuan hartu behar da, bakoitzak bere eginkizun eta ezaugarriak desberdintzen dituela, horien abantailak eta desabantailak batera.

Hona hemen hau hobeto erakusteko burutze propio taula bat:

3.1. Taula: Garraio mota bakoitzaren abantailak eta desabantailak

Garraio mota	Abantailak	Desabantailak
Errepidekoa	<ul style="list-style-type: none">- Ia edozein tokitara iristeko aukera.- Antolaketaren kontrola eta malgutasuna.- Dokumentu-izapideen burokrazia eskasa.- Kontratatzeko erraztasuna eta bizkortasuna.	<ul style="list-style-type: none">- Arrisku handia.- Kostu aldakorra.- Karga-ahalmen mugatua.- Iragaite-denbora handiagoa.
Trenbidea	<ul style="list-style-type: none">- Kostu txikia bolumen handietarako.- Seguruagoa	<ul style="list-style-type: none">- Ibilbideko malgutasunik eza.- Ontziz aldatu eta karga asko erabili.- Iragaite-denbora handiagoa.

Itsas garraioa	<ul style="list-style-type: none"> – Kostu txikia bolumen handietarako. – Malgutasuna. – Segurtasun handiagoa 	<ul style="list-style-type: none"> – Entrega-epe luzeak. – Dokumentu-izapideen burokrazia. – Karga-aseguruaeren kostu handia.
Aireko garraioa	<ul style="list-style-type: none"> – Arintasuna. – Entregatzeko epea laburragoa da. – Segurtasun handiagoa edukiarentzat. 	<ul style="list-style-type: none"> – Kostu handia. – Murrizketak. – Kargaren zenbatekoak mugatzea.

Iturria: Egite propioa, (Thomson Reuters, 2022) baliatuz

Lehenik eta behin, ikusi dezakegunez, lurreko salgaien garraioa dugu eta garraio-mota horrek bi garraio-mota bereizten ditu: trenbidea eta errepideko garraioa.

Trenen bidezko salgai-garraioa distantzia ertain-luzeko kargak garraiatzeko erabiltzen da. Abantailei dagokienez, salgai-bolumen handiak garraiatzeko ahalmena ematen digu, eta, horri esker, nabarmen murrizten dira kostu operatiboak, oro har nahiko txikiak izaten baitira. Horretaz gain, trenak aukera ematen du salgai-mota ugari garraiatzeko. Azkenik, trenbideak salgai garbien garraibidetzat har daitezke, oso kutsadura-maila txikia baitute. Gainera, Europan bideen zabalera Espainiako bideena ez bezalakoa da, eta horrek salgaiekin aldaketa egitera behartzen ditu operadoreak. Azkenik, kontuan izan behar dugu salgaiak trenbideak iristen diren lekuraino bakarrik irits daitezkeela, eta, beraz, karga biltegietan edo entrega-puntuetan deskargatzeko beste garraibide bat izan behar dela beti.

Bestalde, lurreko garraioaren barruan, salgaien errepideko garraioa ere badago. Izan ere, kamioiek salgaiak atez ate garraiatu ditzakete, eta horrek esan nahi du ez dutela beste garraio-mota bat behar salgaia adostutako azken puntuan entregatzeko. Errepideko garraioak badu beste abantaila nagusia ere, bidalketak egiteko ordutegi-askatasuna hain zuzen ere. Hala ere, errepide bidezko garraioak malgutasun handiagoa eskaintzen du, irteera orduak ez baitaude inongo datari lotuta. Bestalde, urtero nabarmen murrizten den arren, errepideko garraioa da ezbehar-tasa handiena duen modalitatea.

3.1. Irdia: Salgaiak errepidez garraiatzeko korridore nagusiak



Iturria: Orcao, 2008

Itsas garraioa da gehien erabiltzen dena nazioarteko merkataritzan, salgaiaren %70 baino gehiago itsasontzien bidez garraiatzen baita nazioarteko merkataritzan. Onura nagusi gisa, prezioa nabarmentzen dugu. Itsasoz garraiatutako salgaiak egiten duten distantzia kontuan hartuta, garraio-mota horren kostua txikia da aireko garraioarekin alderatuta. Gainera, errepide bidezko garraioa kontratatuko luke, itsas garraioari esker garraiatzen baitira karga handienak eta masa handia. Kontrako aldean, desabantaila gisa, garraioaren moteltasuna nabarmentzen da.

Itsas garraioa ez bezala, aire-garraioak mugitzen du salgai-kantitate txikiena, nahiz eta azken urteetan gora egin duen. Izan ere, garraio bide garestiena da, eta, beraz, bidalketa berezietarako edo presako bidalketarako erabiltzen da. Gainera, karga-muga bat dago bidalketak egiteko; beraz, salgai-bolumen handia garraiatu nahi badugu, hobe da itsas garraioa aukeratzea. Hala ere, dena ez da desabantailak. Hegazkina gaur egun dagoen garraio biderik azkarrena eta eraginkorrena da. Azkenik, sinekzio-indize txikiena duen, hau da, ezbehar gutxien jasaten duen garraio bidea da.

3.1.1. Aireko karga vs gainerakoak

Lan honetan, lehen esan dugun bezala, aireko garraioari helduko diogu, eta, beraz, gainerako garraio bideen aldean dituen abantaila zuzenenak azpimarratu behar dira. Azken urteotan gehien hazi den garraio bidea da, alde handiarekin, batez ere bidaiarien garraioan, baina baita salgaien garraioan ere, bereziki balio handiko materialak garraiatzeko, pakete-denda komertzialetarako (online erosketak) edo larrialdi handiko bidalketarako erabiltzen dena.

Aireko garraioaren aldeko eta kontrako puntuetan sartu aurretik, interesgarria izan daiteke aire-garraioaren bidezko merkataritzaren ezaugarriak behatzea, gure kasuaren arabera zein garraio bide erabiltzen den hobeto bereizteko. Jakina, aire-garraioan erabiltzen den ibilgailu bakarra salgai-hegazkina da, aireportuen edo aerodromoen artean askotariko salgaiak mugitzeko erabiltzen dena. Baina azken adibide hori ez da hain ohikoa.

Oro har, aireko garraiorako oso ezaugarri zehatzak dituzten salgai-hegazkinak erabiltzen dira, hala nola fuselaje zabalagoa eta upategi bateratu bakar baterako sarbide desberdinak. Soto horrek, bidaiarien hegazkinek ez bezala, 2 eta 3 upategi-konpartimentu ditu bereizirik, eta ataka bat sail bakoitzeko.

Gero eta globalizatuagoa den munduan, gero eta ohikoagoa da salgaiak distantzia luzeen artean mugitzeko beharra. Hori aireko garraioari esker lortzen da; izan ere, ordu gutxi batzuetan bi aireportu konekta daitezke milaka kilometrotara dauden herrialdeen artean. Horrek hurrengo puntura eramaten gaitu alde (Colmenares, 2022).

Distantzia handiak estaltzeko gai ez ezik, oso denbora gutxian egiteko ere gai da, eta horrek konpainia handi askoren garraio bide gogokoena bihurtzen du, gero eta maizago eskaintzen baitituzte produktuak egun gutxi batzuetan, eta horrek sekulako lan logistikoa eskatzen du atzean, aire-garraioa ezinbestekoa baita (Garcia, 2023; Lopez, 2004).

Balio eta pisu gutxiko zenbait salgaia daude, kontserbazio-ezaugarri bereziak dituztenak, eta ez da oso gomendagarria beste edozein bidetatik garraiatzea. Adibidez, balio handiko elikagaiez eta produktu galkorrez ari gara, zaintza eta kontserbazio berezia behar dutenak, eta ezin izango lirake garraiatu horretarako gaitutako salgai-hegazkin baten bidez ez balitz. Salgaia mota hori garraiatu nahi izanez gero, helmugako herrialdeko erregistro fitosanitarioan jaso beharko da, ziurrenik (Colmenares, 2022).

Horrek edozein oztopo dela-eta atzeratzeko arriskua murrizten du. Muga bakarria aire-zirkulazioagatik izan daiteke aireratzeko edo lurreratzeko orduan, eta inoiz ez da iraupen luzekoa izaten, gehienez ordu batzuetakoa.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da gauza guztiak alde negatiboren bat dituztela, eta garraibide hau ez da salbuespena. Izan ere, orain arteko garraibiderik garestiena da. Bi arrazoiengatik gertatu da hori: erregaiaren kostua (kerosenoa) eta aireportu-azpiegituren erabileraren kostua. Beste kostu-mota batzuk ere badaude, batzuk gainerako garraibideen parekoak, baina bi horiek dira gainerako baliabideekin aldarazi behar direnak. horren kostu handia dela eta, oso garesti aterako litzateke salgaien hegazkina erabiltzea balio gutxiko edo bolumen handiko salgaiak garraiatzeko, garraioaren kostua izugarri handituko bailuke.

Eta, azkenik, oso garraibide sentikorra denez eta inguruan zehaztasun handia eskatzen duenez, hegaldiaren ibilbidean edo irteerako edo helmugako aireportuetan edozein aldaketa klimatikok atzerapenak eragin ditzake. Eguraldi txarra dela eta, ez da ohikoa inguru horietan atzerapen handiak ikustea, baina zenbait tokitan atzerapen handiak gerta daitezke (Thomson Reuters, 2022).

Airez mugitzen diren salgaiak munduko merkataritzaren balioaren % 30 eta % 40 bitartean eta manufaktura-esportazioen balioaren % 28 dira; proportzio hori % 40raino igotzen da Asiako eta Pazifikoko gune ekonomikoetatik datozenean. Aireko karga munduko ekonomiaren motor bihurtu da: Duela hiru hamarkadatik hona, munduko BPGaren %1eko hazkundearekin, %2ko igoera izan da merkataritzan eta %2,4koa garraiatutako zamaren balio eta bolumenean. Hazkunde-erritmo horren ondorioz –bidaiari-trafikoak erregistratutakoa baino handiagoa–, aire-karga aire-konpainien diru-sarreraren % 16 da, eta aireportuetako diru-sarreraren % 10 eta 15 bitartekoa (Escalona eta Ramos, 2010).

3.1.2. Abiazioa

Ikusi berri ditugun ezaugarri eta informazio horiek guztiak aztertuz gero, askoz hobeto ulertzen da garraibide bakoitza besteen osagarri direla. Lan honetan, aireko garraioan, eta, zehazkiago, karga-jardueran jarriko dugu arreta.

Aire-garraioa pertsonak, salgaiak eta posta aireontzietan lekualdatzea ahalbidetzen duen desplazamendu-jarduera da. Beraz, airean bidaiatzen duen eta aireportuetan dagoen garraio-motaz ari gara. Garraibide hori antolatzeko behar den azpiegitura fisikoa aireportuak dira. Beraz, instalazio horiei esker aireratzen, lurreratzen eta modu seguruan aparkatzen dute aireontziek. Gainera, portuetan bezala, salgaien zamalanetarako eta bidaiariak ontziratzeko eta lehorreratzeko mugak dituzte. Horiek mantentzeko eta erregaia hornitzeko behar den lekua ere badute.

Salgaien aireko garraioaren ezaugarri eta abantaila nagusiak hauek dira: azkartasuna, fidagarritasuna kargaren segurtasunari dagokionez, urruneko lekuetara iristeko mugarik ez izatea. Hala ere, eragozpenak edo desabantailak ditu kostu handiagoari, muga burokratiko edo legalei eta aireontzien tamaina eta edukieragatik muga teknikoei dagokienez.

Lehenik eta behin, abiazio komertzialaren bidez, pertsonen garraioa egiten da, bigarrenik, salgaien aireko garraioa da gehien erabiltzen den garraibideetako bat. Kostu handiko garraio-mota den arren, azkartasuna da abantaila nagusia. Izan ere, salgai batzuk, beren izaeragatik, airez bakarrik garraia daitezke, hala nola: salgaia orokorra, salgai galkorrak, pharma-salgaiak, salgai arriskutsuak...

Aireko garraioaren inguruan sailkapen mota asko egin daitezke, orokorrenetatik, aireko garraio motaren arabera (helikopteroa, hegazkin pilotagarria, hegazkina,..) espezifikotara, garraiatutako karga motaren arabera sailkatzen direnak (hiru talde handi bereizten dira: *hegazkin mistoak* (bidaiariak kabinan eta salgaiak sotoan), *karga-hegazkinak* (salgaiak bakarrik) eta *supergarraioak* (tamaina handiko salgaiak garraiatzen dituztenak)). (Garcia, 2023; Itaerea, 2021)

Aire-garraioaren garrantzia honako honetan datza: lanpostuak sortzeko eta babesteko, pertsonen eta herrialdeen arteko merkataritza eta konektagarritasuna indartzeko, besteak beste. Aireko konektibitateak, produktibitatea handitzea, eraginkortasuna hobetzea eta berrikuntza bultzatzen ditu.

Hala ere, onura horiek ingurumen-kostua dutenez, hegazkintza modu iraunkorren haz dadin, ezinbestekoa da industriak aire-bidaien hazkunderaren abantailak berdintzea klima-aldaketaren aurkako ekintzei ekiteko ardurarekin.

3.1.3. Aireko logistika

Aireko logistika kanpo-merkataritzaren elementu ia ezinbesteko bihurtu da, bai salgai batzuen balio handiagatik, baita azken bezeroek eskatzen duten entrega-berehalakotasunagatik ere. Produktu galkorretarako edo oso balio handiko produktuetarako erabiltzen da, azkar ontzea eskatzen baitute, eta erosleek presako entrega eskatzen badute.


Azken urteotan, ecommerce-aren gorakadak aire-zerbitzuaren eskaera areagotu egin du, kontsumitzaileek epeei eta entregean segurtasunari dagokienez zorrotzak izan baitira, eta gogobetetasuna lehiakortasun-elementu bihurtu da enpresentzat (Luque eta Lozano, 2022).

Aireko karga-garraioa salgai-garraibiderik berriena da, eta aurrerapen handia eragin du logistika-sektorean, urtetik urtera negozio-zifra handitzen ari den garraio-mota baita (Serrano, 2020). Gaur egun, merkataritzarako gehien erabiltzen den garraibideetako bat da eta erabilera nabarmen handitzen ari da azken urteotan. Azkartasun horrek justifikatzen du kostu handiagoa beste garraibideekiko, hala nola itsasontziarekiko.

Honetaz gain, teknologia aeronautikoa erritmo izugarrietan aurreratzen ari da, motor gero eta eraginkorragoak dituzten hegazkinak erabiliz. Horri esker, gero eta onuragarriagoa eta errentagarriagoa da salgaien nazioarteko garraiorako erabiltzea, eta esportazio- eta inportazio-eragiketarako giteko garraio-modalitate erabilienetako bat da.

Mundu globalizatu honetan, Espainia ez dago atzeratuta aire-bideetako salgai-mugimenduen baldintzetan, baina kontuan hartu behar da bere aireportu guztietako 5 baino ez daudela aire-zaman espezializatuta. Gaur egun, 3.1.3. irudian ikusi dezakegu aireportu horiek zeintzuk diren. Lan honetan, Forondako aireportuan zentratuko gara.

3.1.3. Irudia: 2020an salgai-bolumen handiena zuten Espainiako aireportuak



Iturria: Aenako Aireportuak, Statista 2023

4. Gasteizko hiria

GRAL honen protagonistari buruz (Forondako aireportua) hitz egiten hasteko, hiriaren deskribapen txiki bat egitea komenigarria da. Gasteiz, Euskadiko hiriburua, erreferentzia nazionala eta nazioartekoa da salgaien mugimenduari dagokionez.

Bere kokapen pribilegiatua, itsasotik kilometro gutxira, eta Espainiako probintzia nagusietara bide- eta trenbide-sare oparo eta zainduaren bidez konektatuta, enpresa askok eremu hori aukeratu dute merkataritza-transakzioen ardatz gisa.

Hiriak 254.445 biztanle ditu gaur egun, eta automobilgintza eta garraioa izan ditu aurkezpen-kartarik onena. Izan ere, Mercedes Benz edo Michelin bezalako enpresek hamarkadak daramatzate hemen lanean emaitza bikainekin. Forondako aireportua bezalako azpiegiturek, hirigunetik eta industrialdeetatik kilometro gutxira, Arabako hiriburuaren gaitasun hori balioan jartzea baino ez dute egiten, salgaien etorkizunak planteatzen dituen erronkei erantzuteko.

4.1. Kokapena eta beste ezaugarriak

Antzinatik, kokapen geografikoa dela eta, Gasteiz Frantziara iristeko igarobideak gurutzatzeko eremu estrategikoa izan da. Lurzorua eskuratzeko aukera handia duen kokaleku estrategiko horretan kontzentratzen da lehen mailako azpiegitura eta plataforma logistikoen potentzial handiena, eta, Bilboko eta Pasaiaiko portuekin batera, Euskadiko konektibitate logistikoa oinarritzko nodoa osatzen dute.

Hiriaren hazkunde ekonomiko eta urbanoa maisutasunez uztartzen jakin du eta kargen mugimendua funtsezko elementu bihurtu da aberastasuna eta enplegua sortzeko.

Gasteiz Iberiar penintsularen iparraldean dago, Europa eta Afrika iparraldea lotzen dituen ibilbidearen erdian, hau da, gune estrategiko batean. Puntu honetara iritsita, Europa barneko ibilbidea (TENT-T) azaldu behar dugu (Kompala, 2015). Europar Batasun osoan pertsonen eta salgaien komunikazioa errazteko pentsatutako lehentasunezko garraio-sareen multzoa izanez, Europako garraio-sare transeuroparrerako agentzia exekutiboak finantzatzen du (European Union, 2023). Ibilbide hau, trenbideko nodoaren, airekoarena eta errepidekoaren bidez ere, Arabatik igarotzen da.

Ibilbide horrekin batera, azpimarratzekoa da Europako Lehentasunezko 9 Korridoreetako bat Atlantikoko korridorea dela (7. korridorea). Portugalgo Sines udalerritik abiatuta, Iberiar Penintsula Frantziarekin eta Alemaniarekin lotzen du diagonalean, eta jarraipena ematen die Portugalgo fatxadako portuen arteko garraio-sareei, Frantziako Le Havreko portuarekin eta Alemaniako Mannheimeko tren-nodo intermodal handiarekin (Zajac, 2015).

Trenbideak beste garraibide batzuekin duen lehiakortasuna handitzeko sortua, Europa konektatzeko balio du eta Gasteiz zeharkatzen du. Madril-Gasteiz ibilbideak iberiar penintsularen zabalera du, baina aldatzeko, tunelak egokitzeko eta pasabide garaiak egokitzeko asmoa dago.

Hori guztia oso beharrezkoa da abiadura handiko tren-autobideetarako, gainera, datozen urteetarako aurreikusitako aldaketa nagusia Euskal Y-a izeneko abiadura handiko tren-konexioaren agerpena izango da. Euskal hiriburu guztiak lotuko ditu Madrilekin eta, oro har, Abiadura Handiko Espainiako gainerako sarearekin.

Hala ere, Gasteizko indarguneak ez dira euren kokapen ezustekoan bakarrik oinarritzen, baita herrialdearen iparraldeko zati handiarentzako potentzia industrialak direnetan ere.

Aipatzekoak dira, Jundiz-CTV Industrialdea eta bere hedapena, Miñanoko Parke Teknologikoa eta Arasurreko Plataforma Logistikoa (Miranda de Ebroren ondoan kokatua), hauek guztiak portuko eta aireko jarduerak bultzatzeko eta garatzeko ezinbestekoak dira.

4.2. Gasteiz-Foronda aireportua

Gasteizko hiriburuko gotorlekurik handienen zati bat kokatu eta deskribatu ondoren, Gasteiz-Foronda aireportuan sakontzen hasiko gara. 60ko hamarkadan, Gasteizko Salburua aldeko aireportua txikia geratu zenean, erakundeak lanean hasi ziren, Merkataritza Ganberak hegaldi erregularrak eskatu zizkion Aldundiari, eta erakundea lurralde bila hasi zen, herrialde osoko erreferente izango zen aireportu berri eta handi bat eraikitzeko.

Adituen arabera, Forondan zeuden lekurik hoberen eta Madrilen oniritziarekin, proiektua 1974an aurkeztu zen eta 1980an inauguratu zen, tokiko erakundeen akordioari esker. Bere azpiegiturak erabat publikoak dira eta bere titulartasuna estatuaren inaugurazio-egunetik (Echeazarra, nd).

Forondako aireportuaren ezaugarri teknikoak direla eta, Espainiako elite rankingean kokatzen da:

- 3,6 kilometro ditu haren lurreratze pista eta Espainiako luzeenetako bat da, aireontzi handiak hartzeko aukera ematen diona;
- Bere eraikuntzaren orientazioa, gasteiztarrek hegazkinak hiriaren gainetik jasan behar izatea ekiditen duena;
- Mila metroko errodadura-pista; 15.000 metro karratuko aparkatze-plataforma,
- Kontrol-blokea, pistatik ehun metrora antenak dituena, 2.500 metroko autobide-errepidea...

Goian azaldutako ezaugarriak oso leku onean kokatzen dute aireportua etorkizuneko plan estrategikorako.


Nahiz eta gaur egun bidaiariei dagokienez hala ez izan, Bilboko Aireportuak jarduera mota horrekin kargatzen duelako, Foronda estatuaren iparraldeko erreferentziako aireportua izateko diseinatua eta eraikia izan zen.

Garai hartako behin-behineko terminal aktiboak urtean 600.000 bidaiari hartzeko gaitasuna izan zuen. Hasierako planak ziren eraikin hori karga-terminal bihurtzea gehienez ere 3 urtean, eta etorkizuneko instalazio berriak urtean 2,5 milioi bidaiari hartzeko, baina ez zen horrela gertatu (Gaton, 2021a). Behin-behineko terminalak, azkenean 2020an, erreforma lanak egin ziren eta hurrengo urteetarako itxura modernoagoa eman zioten (Gaton, 2021b).

Forondako historia

Zapuztutako proiektuak, Foronda aireportua are garrantzitsuagoa bihurtuko zuen estatu-mailan; izan ere, bidaiarientzako terminal berri handi bat eraikitzeaz gain, karga-jarduerarako hainbat gune moldatzearekin batera, lurreratze bigarren pista bat ere proiektatu zen, operazio guztiak hornitzeko (Gaton, 2021a). Beheko irudian Forondako terminal berriaren proiektua (1980 eta 1983 bitartean aurrera eramateko diseinua) ikus daiteke.

4.2.a. Irudia: Forondako terminal berriaren proiektuaren plano nagusia



Iturria: Gaton, 2021a

Hainbat arrazoiengatik, sozialak zein politikoak, plan hori ez zen inoiz aurrera eraman, baina zorionez zamaren jarduera-plana ez zen alde batera utzi. 1981ean, nazioarteko trafikorako aduana-gaikuntza zabaldu zen eta hemen ezartzen hasi ziren inportazio- eta esportazio-enpresei erantzuteko lehen karga-ekipoak.


Lehenak IberiaCargo izan ziren eta 1.500 metroko hangarra izan zen lehen terminala. Urte batzuk geroago, salgaiak garraiatzeko aduana-instalazioak handitu ziren, eta, horrenbestez, 1993az geroztik, aireportua aire-kargaren tratamenduan espezializatu zen, eta penintsularen iparraldeko salgai-zentro banatzaile gisa jardun zuen (Echeazarra, nd).

Jarduera hori sustatzeko, VIA (Vitoria International Airport) sozietatea eratu zen 1994an, Aenak, Gasteizko Udalak, Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak osatua eta gaur egun ere beste siglekin jarduten jarraitzen dute. Hala eta urte hartatik aurrera, aireportua estatuaren laugarren postuan jarri zen salgai-mugimenduan (Mayo, 2021).

Mende honetako hurrengo 10 urteetan Foronda gertakari askoren protagonista izan zen, hala nola hegaldi bereziak, bidaiarien operazioetan gorabeherak, karga handitzea, oraindik argirik eman ez duten proiektu industrialen planoak... baina, batez ere, Europak Foronda MIP (Mugako Ikuskaritza Postua), animalien mugimendua eta estabulaziorako esparru gisa baimendu zuen.

2010ean, aireportuko etapa ilunena hasi baino lehenago, Arabako pistan gertatu zen zamarekin lotutako gertaera historikoenetako bat. Izan ere, Forondan lurreratu zuen Antonov AN-225 zama handiko munduko aireontzirik astunena, 120 tona elektronika txinatar konplexutasun logistiko handiko operatibo batean (Genter, 2018).

4.2.b. Irudia: Antonov 225 hegazkinaren karga-upeltegia



Iturria: Genter, 2018

Urte horretan aldiz, bidaiarien ohiko hegaldiak desagertu egin ziren eskari eskasaren ondorioz, eta urte batzuk geroago, 2012ko udan Gobernu Zentralak kostuak aurrezteko, aireportuak hiru taldetan sailkatzea erabaki zuen bidaiarien mugimenduaren arabera, horrela Foronda III. taldean kokatu zen.

Horiek ordu-murrizketa bat jasan zuten, edo beste batzuk Castelló bezala guztiz itxi ziren, gure aireportuaren kasuan eta salgaien mugimenduan duten garrantziagatik, 12 orduko gaueko ordutegia mantentzea erabaki zuten.

Hala eta guztiz ere, AENAK ziurtatu zuen eskaria handituz hedatuko zela jarduera-ordutegi hori, baina tokiko erakundeak eta aireportuko langileak ez zeuden ados erabakiarekin; izan ere, horien arabera, "ordutegia luzatzen ez bada, oso zaila da konpainiak erakartzea. Ordena zuzena hauxe da: ordutegia zabaltzea eta ondoren aire-konpainiekin negoziatzea, ez alderantziz".

Espero zen bezala, ondorioak ez ziren batere onak izan. Izan ere, bidaiarien hegaldiak bertan behera uzteaz gain, Forondak bere irudi ona eta enpresa askorentzako erakargarritasuna galdu zituen, izan ere, gaur egun ordutegi horrek ez die ez onurarik ez interesik sortzen. Horren ondorioz eta zailtasunei aurre egitea lortu bada ere, Zaragoza bezalako lehiakide zuzenek merkatu-kuota lapurtu zioten Gasteizi.

Mugako ikuskapen-puntua (MIP) galtzeak ez zion batere onik egin aireportuaren garapenari eta haren jarduerari. Gune hau instalazio estrategikoa eta funtsezkoa da, MIPrik gabe ezin baita arrainik, itsaski freskorik edo animalia bizirik garraiatu. Nabarmenezkoa da krisialdiaren aurretik, postu horri eta Decoexsa nazioarteko operadore logistikoari esker, Forondatik arrain kantitate gehiago sartzen zela astero Boeing 747 baten bidez, euskal kostaldeko arrantza-portuetatik baino.

Hurrengo urteetan MIPa berriro martxan jarri zen, baina akordioak ez ziren urte askora arte iritsi, gaur egun ere, instalazio horiek ez dute lortu aurreko jarduerarik.

Urte gogorrak izan ziren, eta DHLren eta beste zenbait karga-kideren aldetik karga-jarduera maila onean mantentzea lortu zuten arren, eta ez zen operatibitate osora itzuli 2019ra arte. Ordura arte, hegaldi erregular gutxi batzuk aireportura itzuli ziren eta zaman zeuden datuak handitzen ari ziren. Hori dela eta, DHL karga-garraioa konpainia handiak erabaki zuen Foronda HUB nagusi bihurtzea penintsula osorako.

2017an, konpainiak 23 milioi euro baino gehiago inbertitu zituen bere nabea zabaltzeko, orduko 18.000 piezako prozesu automatizatua ahalbidetzeko (paketeria, gutun-azalak eta paletak), eta horrek nabarmen hobetu zuen zerbitzuaren eta operazioaren kalitatea (EITB, 2017).

DHLko inbertsio ostean, bidaiari zein zama operazioetan izandako gorakada dela eta, COVID-19aren pandemia hasi aurretik, berriz aireporturako 24-h lortu zen.

Horretarako, ingurumen-txosten bat izapidetu behar izan zen, instalazioak barrutik berregituratu eta 15 langile kontratatu ziren (2012an H24 kendu zutenean AENAKo 120 langileen erdia baino gutxiago izango litzateke). Mugako Ikuskaritza Postua ere berriz irekitzea erabaki zen, etorkizunean aktibatu ahal izateko eta enpresa interesatuen esku uzteko (EITB, 2019). Zorionez, eta osasun-krisi handi baten atarian egon arren, Forondak bide onari jarraitzea eta bere estatistikak haustea lortu zuen.

5. Salgai-trukaketako fluxu handienak: inportatzaile eta esportatzaile nagusiak

5.1. Aireko karga konpainiak

Gaur egun, aireko karga konpainia asko daude egunero milaka eta milaka tona mugitzen dituztenak munduaren inguruan, salgaiak beste bitarteko batzuen bidez garraiatzeko beste konpainia batzuekin batera. Hurrengo taulan azaltzen dugun bezala, hauxe dira aireko karga konpainia nagusienetako batzuk:

5.1. Taula: Aire-karga konpainia nagusiak

ENPRESA	EZAUGARRIAK	PRESTAKUNTZA
	FedEx munduko hegazkin-karga konpainia handi eta ezagunenetako bat da.	375 hegazkin eta 6700 lurreko instalazio baino gehiago.
	UPS (United Parcel Service) mundu osoan onartutako entrega- eta logistika-konpainia da, fidagarria eta zerbitzu-sorta zabalagatik, eta Estatu Batuetan konpainia onenetako bat da.	250 hegazkin baino gehiagoko flota bat operatzen du eta 200 herrialde baino gehiagotan
	DHL munduko logistika-konpainia handienetako da, eta aire-kargako zerbitzuak ere eskaintzen ditu, hegazkin-dibisioaren bidez.	250 hegazkin baino gehiago ditu eta mundu osoan jarduten du.
	1970ean sortutako Europako aire-kargako konpainia nagusietako bat da, produktu galkorrak, farmazia-produktuak eta karga astuna barne.	30 hegazkin baino gehiago eta 90 helmuga baino gehiagotan: Afrika, Asia, Ipar Amerika eta Hego Amerika barne.
	Korean Air-ren Asiako karga-konpainia nagusietako bat da. Zerbitzu ugari eskaintzen ditu: karga orokorra, karga arriskutsua, hoztutako karga eta animalia biziak kargatzea...	30 hegazkin baino gehiagoko flota du eta 100 helmuga baino gehiagotarako zerbitzuak eskaintzen ditu.
	Emiratesen karga-dibisioa da eta munduko karga-ontzirik handienetako da. Mundu osoko helmugen sare bat ditu.	10 Boeing 747-400 hegazkin baino gehiago.

Iturria: Egite propioa. RM-Forwarding, 2018 abiatuta.

Baina behin eta berriz ikusi dugunez, Forondak erakargarriagoa izan behar da lehiakideen aurrean bere gainbeherari aurre egiteko, horretarako, nahitaezkoak dira azpiegituran emango diren inbertsioak.

7.2. INBERTSIOAK ETA AIREPORTUAREN INPUT-OUTPUT

7.2.1. Inbertsioak

Orain arte ikusi dugun bezala, historian zehar hainbat inbertsio ekonomiko egin dira aireportu honetan, instalazio eta zerbitzuak hobetzeko. Horiek balioesteko, kontuan hartu behar dira eragile esanguratsu guztiak, alde batetik esparru politikoenean, bai tokiko eta estatuko erakundeetan eta bestaldetik, aireportuaren parte izan diren edo diren enpresak, bai kokatzeko edo bere jarrera eta posizio estrategikoa indartzeko.

IRAGANEAN

1970ean, eskualdearen garapen ekonomikoaren ondorioz, Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak Foru Aldundiaren esku-hartzea eskatu zuen, Gasteiz Espainiako eta Europako hiri nagusiekin lotzeko linea erregularrak ezartzeko. 1980an inauguratu zen, Arabako Merkataritza Ganberak, Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Gasteizko Udalak hartutako konpromisoari esker. Aipatzekoa da Foronda dela eta izan zela Diputazioak sustatu, finantzatu eta inauguratu zuen herrialdeko aireportu bakarra. Inauguratu zen egunean bertan eman zitzaizkion eskumenak Estatuari (Mayo, 2021).

Proiektuak aurrera eramateko beharrezkoak ziren txosten, azterlan eta prozedura guztien barruan, Ministerioak urte haietan 2.500 milioi pezetako inbertsio osagarriak egiteko konpromisoa hartu zuen, bai eta Arabako Foru Aldundiari aireportuko zerbitzuen kudeaketan parte hartzeko araudia prestatzeko berariazko adierazpena ere (AENA, 2023b).

Urtebete geroago, salgaiak garraiatzeko aduana-instalazioak handitu ziren. 1993tik aurrera, aireportua aire-kargaren tratamenduan espezializatu zen, eta penintsularen iparraldeko salgaien zentro banatzaile gisa jardun zuen. Jarduera hori sustatzeko VIA sozietatea eratu zen 1994an, Aenak, Gasteizko Udalak, Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak osatua (Mayo, 2021).

GAUR EGUN

Hona arte, argi geratu da tokiko erakundeen funtsezko eginkizuna aireportuaren apustuari dagokionez. Izan ere, urte batzuk geroago, airelineetarako lehiaketetan partida ekonomikoak dituzten bidaiarien hegaldiak sustatuz edo hainbat urtetan Estatuko

aurrekontu orokorretan inbertsioak negoziatuz (horrela, 24 orduko operatiba berriro ezarri zen, horretarako beharrezkoak diren langile eta elementu guztiekin batera).

2019an, Eusko Jaurlaritzak eta AENAK inbertsio berriak iragarri zituzten Gasteizko aireportuan, haren gaitasuna eta konektibitatea hobetzeko.

Inbertsio horren zati bat bidaiarien terminala handitzeko (1,76 milioi euro), lurreratzeko pista hobetzeko eta salgaiak kargatu eta deskargatzeko eremuak handitzeko erabili zen. Gainera, segurtasun-sistemak hobetu eta teknologia berriak ezarri ziren eraginkortasun operatiboa hobetzeko. 2020an, COVID-19aren pandemia eta aire-zirkulazioaren murrizketa gorabehera, Gasteizko Aireportuak inbertsio ekonomikoak jasotzen jarraitu zuen.

Erakundeek hurrengo errepideak egokitzeko eta erregaia hornitzeko azpiegiturak hobetzeko proiektu berriak finantzatzeko inbertsio gehigarria iragarri zuten (Gaton, 2021b).

Gasteizko Udalak, Arabako Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak Gasteizko Aireportuan egindako inbertsio ekonomiko horien helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko aireko konektibitatea hobetzea eta karga-trafikoak kudeatzeko ahalmena handitzea. Gainera, hasieratik hobekuntza horiek tokiko ekonomian eragin positiboa izatea espero izan da, enpresa eta inbertitzaile berriak erakarritik.

AENA-tik

Urte hauetan guztietan hainbat erakundek eta enpresak parte hartu baitute modu batera edo bestera Forondako hazkunderan. Atal honetan, Aenaren garrantzia azpimarratu behar da, bera baita Espainiako aireportu gehienek kudeatzailea, eta bere inbertsioen barruan DORA delakoa nabarmendu behar da (Mitma, 2021).

Txosten horretan, aireportu-kudeatzailearen inbertsio-baldintzak ezartzen dira bost urtean behin, eta lehentasuna ematen zaie edukiera-, kalitate- eta segurtasun-eskaerari erantzuten dioten jarduerari, eraginkortasun ekonomikoaren eta ingurumenarekiko errespetuaren ikuspegitik, aktiboen oinarriari eusten zaiola eta eskura dauden instalazioak optimizatzen direla bermatuz.

Hurrengo tauletan AESAren eskutik, datorren lau urteetarako inbertsioak eta horien zenbatekoak sailkatuko ditugu:

7.2.1.a Taula: AESAko inbertsioen sailkapena eta hurrengo urteetarako programazioa

Clasificación de las inversiones							
TIPO DE INVERSIÓN	DEFINICIÓN						
ESTRATÉGICAS	Necesarias para cumplir con los estándares de capacidad y fundamentales para garantizar el interés general						
NORMATIVAS	Derivadas de las obligaciones normativas						
RELEVANTES	Relacionadas con la navegación aérea, la dotación de capacidad en infraestructuras, la eficiencia y el ahorro energético, el fomento de la utilización de energías renovables y el esfuerzo en términos de innovación						
OTRAS	Dotaciones presupuestarias para reposiciones y mantenimiento necesarias para la gestión aeroportuaria ordinaria						
Inversión anual programada							
Millones de €	2022	2023	2024	2025	2026	Total	Media anual
Inversión total reconocida	448,5	459,8	447,9	437,5	456,3	2250	450

Iturria: AESA, n.d.

Azaltzen den bezala, inbertsio mota desberdinak daude, bakoitza helburu batekin eta aireportu bakoitzaren beharrak betetzeko. Kudeatzaileek Forondak %2,26 salgaietan eta %7,45 bidaiarietan haziko dela aurreikusi dutenez, hauek dira aireporturako egingo diren inbertsio nagusiak (milioi eurotan):

7.2.1.b. Taula: Documento De Regulación Aeroportuaria

VITORIA	0,193	0,753	8,315	2,371	1,269	12,901
(N) Incremento de la seguridad operacional	0,000	0,543	8,138	2,170	0,000	10,850
(O) Incremento de la seguridad operacional	0,001	0,001	0,004	0,004	1,087	1,098
(O) Inversiones de apoyo y reposición	0,192	0,209	0,173	0,197	0,182	0,953

Iturria: Mitma, 2021

Aireporturako oinarritzko inbertsioak operazioen segurtasuna handitzean eta laguntza eta birjarpenean oinarritzen dira, hala nola mantentze eta konponketan.

KONPAINIEN ALDETIK

Azkenik, Forondak izan dituen enpresa eta konpainia ezberdinen inbertsioak eta apustu handiak ditugu. Aurreko kapituluetan aipatu dugun bezala, Alemaniako DHL nazioarteko konpainia indartsua azpimarratu behar da, guztira 30 milioi euro baino gehiago inbertitu baititu aireportu honetan. Hala ere, badira beste enpresa eta erakunde batzuk, hala nola Iberia, Air Nostrum, DECOEXA, EAT... base bat eraiki eta zabaltzeko edo instalazioak alokatzeko, lortutako errentagarritasunarekin batera, Foronda erabat indartu dutenak.

Zaila da enpresa horien inbertsioen datu zehatzak lortzea, askotan erakundeentzako maniobra pribatuak baitira. Hala ere, esan beharra dago, DHLkoak izan ezik (gaur arte aireportuaren historian zehar banatzen direnak), gehienak Forondaren jaiotza eta jardueraren hasieran eman zirela, batez ere 2009ko krisi ekonomikoaren aurretik.

Kontuan izan behar da makinerian egindako inbertsio gisa kontabilizatutako elementuetako batzuk, hala nola Iberiak plataformak eta traktoreak erostea, beste aireportu batzuekin batera erabiltzen direnak, horietako bakoitzak dituen behar zehatzen arabera.

Hori gertatzen da lurreko zerbitzuekin ere, hala nola suhiltzaileen kamioiekin, Forondako inbertsio gisa hartzen baitira kontuan, nahiz eta beste aireportu batzuk izan horien jabeak.

7.2.2. Input-Output

Inbertsio guztien eragina eta ondorioak hobeto ulertzeko, interesgarria da Wassily Leontiefek 1973an garatutako input-output eredu famatura jotzea. Ekonomian, "input" eta "output" terminoak ondasunen eta zerbitzuen ekoizpen- eta banaketa-prozesuak deskribatzeko erabiltzen dira (Leontief, 1986).

"Input" ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko erabiltzen diren baliabideak edo ekoizpen-faktoreak dira. Baliabide horiek lehengaiak, eskulana, kapitala eta teknologia izan ditzakete. Inputak ondasun eta zerbitzu bihurtzea da ekoizpenaren helburua.

Bestalde, "output"ak ekonomia, enpresa edo industria batek sortutako ondasun eta zerbitzuen kopurua adierazten du. Outputa, normalean, ekoizten eta saltzen diren produktuen kopuruaren arabera neurtzen da, baita produktu horiek saltzeak sortutako sarreren arabera.

Orokorrean, aireportua bezain konplexua den azpiegitura batean, hainbat input eta output daude, eta honela bana ditzakegu:

7.2.2.a. Taula: Aireportu bateko Input-output-ak

AIREPORTU BATEKO INPUT-OUTPUT-AK	
INPUTak	OUTPUTak
<ul style="list-style-type: none"> - Aireportura iritsi eta handik irteten diren bidaiariak - Kargatze-bidalketak hegazkinetatik kargatuta eta deskargatuta - Aireportua erregaiz hornitzea eta mantentzea - Hegaldia kontrolatzeko aireportura iristen diren bidaiariak - Hegaldi batean fakturatutako bagajea - Aireportura entregatutako karga-bidalketak - Janaria, edariak eta aireportuko jatetxe eta dendetara ematen diren bestelako hornigaiak - Aireportua erregaiz hornitzea eta mantentzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Aireportuko hegaldiak eta operazioak - Hegazkinetan kargatutako karga-bidalketak entregatzeko - Helmugara iristen diren bidaiariak - Aireportutik hegaldietan ateratzen diren bidaiariak - Hegazkinetan kargatutako bagajea, helmugara eramateko - Hegazkinetan kargatutako karga-bidalketak, horiek entregatzeko - Aireportuko jatetxe eta dendetan saltzen diren elikagaiak, edariak eta bestelako gaiak - Ezabatzeko edo birziklatzeko biltzen diren hondakinak eta material birziklagarriak - Irteera-aireontziei emandako erregai- eta mantentze-zerbitzuak

Iturria: Egite propioa, (Garcia eta Morell, 2015) baliatuz

Hala ere, eta Forondako aireportuaren kasurako, beste taula bat osatuko dugu, AENAK datuak argitaratzen hasi zenetik hurrengo urteetan zehar izan duen aurrerapena eta eboluzioa ikusteko: Alde batetik inbertsio guztiak eta garai bakoitzeko gertaerak input (I) eta bestaldetik, bidaiari eta karga-mugimenduak output (O) bezala esleituz:

7.2.2.b. Taula: Forondarako diseinatutako Input-output taula

FORONDAKO INPUT-OUTPUT TAULA			
URTEA	INBERTSIOAK ETA GERTAERAK (I)	BIDAIARIAK (O)	KARGA (T.)
2005	Bidaiarien eragiketen gorabeherak, Iberia bezalako konpainiaren alde egitea eta kargaren inguruan egindako inbertsioak eta apustua.	91.594	34.785.848
2010	Krisi ekonomikoak, inbertsioak desagertzea, ordutegiaren murrizketa eta airelineen martxa.	42.073	27.960.620
2015	Aurreko ondorioak bidaiarien eragiketen inguruan jaitsiera, baina berpizkundea karga eragiketan hainbat konpainien eskutik. (DHL-ren HUB-aren ezarpena)	11.182	46.371.874
2019	Bidaiari konpainia berriak aireportuan ezarrira (Ryanair eta Binter) eta kargaren hazkunde azkarra, DHL-ren inbertsio handia eta bestelako inportatzaile eta esportatzaile nagusien etorrera.	174.024	64.470.673
2020	Covid-19 pandemiaren eragina, aurreko hazkunde onuragarria moztuz	43.757	64.334.516
2021	Pandemia garaiaren eraginak txikiagotu, helgadi komertzialen itzulera, paketeria-eskaerak handitzea eta online erosketen gorkaldia...	128.362	72.529.181
2022	Pandemiaren ondorengo suspertze-aldia, bidaiarien terminalean egindako inbertsioa, kargaren inguruko jarduerak bermatu...	235.186	73.620.067

Iturria: Egite propioa, lan honetan azaldutakoaz baliatuz

Taula honetan egindako analisisan urteroko zenbatekoak kontuan hartuta, argi eta garbi ikus daiteke inbertsioen eta kanpoko eragileen eta ingurunearen garrantzia; izan ere, nabarmentzen da zuzeneko erlazioa dagoela inputen eta outputen artean.

2005ean aireportuan bidaiari-operazioak gutxitzen ari ziren arren, kargaren aldeko apustua erabatekoa zen, batez ere aireportuko eta VIA kudeatzaileen eskutik. 2010an krisialdi ekonomikoaren erdialdean murgilduta zegoen estatu osoa eta AENA kostuak murrizteko, gutxien erabiltzen ziren aireportuak itxi edo haien ordutegia murriztu egin zuen, dakigunez Forondak ez zen libratu eta haren zenbatekoak asko jaitsi egin ziren.

Hurrengo urteak berreskuratze-garaiak izan ziren batez ere kargaren inguruan hainbat konpainiaren eskutik eta 2019, pandemia baino lehen, efektu bera ikusi genuen bidaiarien eragiketetan, Ryanair eta Binter-ren eskutik igo egin zirenak.

Pandemiaren efektua argi eta garbi ikusten da ere, baita hurrengo bi urteko berpizkundea, bidaiari jarduera inoiz baino gehiago igo egin baitzen eta karga mugimenduetan errekorra hautsi egin zen bi urtetan.

7.3. Zona frankoa eta bestelako modelook

Gaur arte hainbat proiektu jarri dira mahai gainean aireportuaren jarduera ekonomikoa indartzeko, baina berrienetako bat inguruan aduana-zergarik gabeko eremua edo zona franko bat ezartzeko proposamena izan da. Eremu geografiko horiek potentzial ekonomikoa eta logistikoa duten lekuetan daude, eta horri esker, oso eskualde emankorrak dira.

Helburu nagusia ekonomia zabalago batean inbertitzea eragozten duten oztopoak gainditzea da, politika murriztaileak, gobernagarritasun eza, azpiegitura desegokia eta jabetza eskuratzeko arazoak barne.

Orain arte eta herrialde honetan, arrantza-portu nagusietan zona frankoak baino ez daude, eta beraz, aitzindaria izango litzateke aireportu baterako bat diseinatzea eta aurrera eramatea.

Gasteizko aireportuaren garrantzia dela eta, AENA-k bideragarritasun-azterketa bat egitea erabaki zuen, Forondan estatuko lehen zona frankoa bultzatzeko. Horretarako, jada munduan zehar dauden eremuak hartu ziren kontuan nagusiki beste herrialde batzuetako aireportuetan ezarriak, hala nola, Shannoneko Eremu Librean (Irlanda), MDV Free Airport Zone (Montevideo, Uruguai)...

Proiektuaren bideragarritasuna zehazteko, honako eragile hauei egin zitzaizkien elkarrizketak: Araba Garapen Agentzia, Gasteizko Garraio Intermodalaren Zentroa, GILSA (Jundiz), Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera, SPRILUR, Arabako Foru Aldundia, Gasteizko Aireportua, SCS, DHL Hegazkintza, UPS, Fedex, Decoexsa...

Azkenean, ondorioztatu zen zona franko oso bat ez zela beharrezkoa ezta errentagarria ere Forondarentzat; izan ere, operadoreen eta erakundeen interes falta dela eta, ez dago eskaerarik aireportuetan indarrean dagoen aduana-eredua aldatzeko.

Hala ere, proiektu mota hau alde batera utzi arren, badaude beste hainbat aukera etorkizunean Forondaren jarduera indartzeko (AENA; 2022).

Adibide gisa, Leipzig/Halleko aireportua jar dezakegu, zirkulazioaren garapen azkarra izan duena, 1,2 milioi TM aire-kargarekin (Europako 5. maila).

Aire-kargari bereziki zuzendutako aireportua: DHL Express eta Lufthansa Cardoren jabetzakoa den AeroLogic karga-konpainiaren eragiketa-basea da (egunean 60 hegazkin baino gehiagorekin jarduten dute), 50 karga-konpainia baino gehiago aritzen dira, astean 1000 hegaldi, Asiarekin 120... zona frankorik gabe (AENA; 2022).

7.3.1. Irudia: European Air Transport (EAT) Leipzig's LEJ hub:



Iturria: S-A, n.d.

Alemaniko aireportuaren antzeko eredu bat proposatu daiteke Forondarako, AENAK proposatutako ZEE modeloa hain zuzen ere, aireportutik gertu kokatuko litzatekeena baina aireportuko esparruan egon gabe. Horrek lehia-abantaila berberak ditu posizionamendu-mailan, estatu-mailako nodo logistikoan eta jarduera ekonomikoen iman mailan.

Beste jarduera eta garraibideekiko sinergiak ahalbidetuko lituzke, baita jarduerabolumen handiagoak erakartzea eta jarduera aeronautikoarekin ezinbestean lotuta ez dauden operadore ekonomiko berriak erakartzea ere. Eskaera-bolumena ez litzateke aireportutik mugitutako salgaiarena bakarrik izango, baizik eta inguruko eta Jundizko portu lehorreko industria eta jarduerari lagundu ahal izango lieke.

Hurrengo kapituluetan azpiegiturarako plan estrategiko bat diseinatzerakoan, eredu hori kontuan hartuko dugu (AENA; 2022).

7.4. AMIA analisia

2023ko bigarren hiruhilekoan eta lan-puntu honetara iritsita, baina Forondako aireportuaren etorkizunera jo aurretik, orain arte aipatutako faktore guztiak kontuan hartuta AMIA analisi bat egingo dugu (del Toro, 2011).

Mekanismo hori analisi estragotikoa egiteko tresna erraz bat da, era guztietako erakunde eta enpresen erabakiak hartzeko oso erabilia.

Horretarako, eta aireporturako eragile desberdinen egungo Plan Estrategikoa kontuan hartuta, hurrengo kapituluetan etorkizun ez oso urrunean sor daitezkeen behar eta eskaera guztiak bete ditzakeen Plan Estrategiko berri eta posible bat diseinatuko dugu.

Azpiegituraren kanpo-ingurunea eta barne-ezaugarriak aztertuz, enpresakudeaketarako tresna honek aukera ematen du ahulezien, mehatxuen, aukeren eta indargunearen irudikapen grafikoa lortzea:

7.4. Taula: Forondako aireportuaren AMIA analisia

AMIA ANALISIA	
AHULEZIAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> - DHL-ren monopolioa. - Hainbat zelaietan, ekipamendu eskasa. - Kostu finko altuak. - Erakundeen arteko konplexutasun burokratikoa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lehengaiaren garestitzea. - Segurtasun-kostuak handitzea. - Oso merkatu lehiakorra. - Eskaria prezioarekiko sentikorra da. - Garraio ekologikoagoen aldeko apustua. - Erregulazio aeronautiko eta gobernu asko.
INDARGUNEAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> - Ezaugarri teknikoak - Kokaleku estrategikoa (Atlantikoko korridorea) - Bezeroen konfiantza, bai bidaiariena, bai bertan dauden garraio-enpresena. - Aparkatzeagatiko prima baxuak. - MIP (PIF). - 24 orduko ordutegia. - Karga prozesatzeko gaitasun handia. 	<ul style="list-style-type: none"> - Paketeria eta merkataritza elektronikoaren goraldia. - Industrializazio-maila oso altua duen hiri bateko aireportua izatea. - Tokiko erakundeen eta estatuko organoen apustua - Merkatu eta ibilbide berriak. - Sektore aeronautikoaren hazkundera etorkizunean. - Eskariaren aldakortasuna. - Inguruko lursail libreak, enpresak erakartzeko.

Iturria: Egite propioa, lan honetan aipatutakoa kontuan hartuz

Taulan ikus dezakegunez, asko dira aireportuari eragiten dioten barruko eta kanpoko elementuak.

Alde batetik, barne eragileen inguruan eta indarguneei dagokienez, ezaugarri teknikoak azpimarra ditzakegu, hala nola, Espainiako pista luzeenetako bat izatea, 24 orduz lan egitea, jarduteko kokapen estrategiko ezin hobea izatea (Atlantikoko korridorea), aparkatzeagatiko prima baxuak, karga prozesatzeko gaitasun handiagoa (karga-konpainiak ezartzearen eta handitzearen ondorioz) eta teknologikoki oso aurreratuta dauden sistemez hornituta egotea (II. kategoriako ILS sistema bat, VASIS bat, pistako ikus-irismenaren neurgailu bat (RVR)...) hegazkinak airean eta kodifikazio meteorologiko zailtan laguntzeko...

Horrekin batera, lan honetan aipatutako MIP indartzeko aukera dago, ibilbide berriak sustatzeko eta beste salgai-mota batzuk garraiatzeko.

Hala ere, ahuleziak ere nabarmenak dira, izan ere, nahiz eta ekipamendu oso ona izan, zenbait alderditan eta puntako orduetan, motz geratzen dira; horrek, askotan, zerikusi zuzena du hainbat erakunderen arteko konplexutasun burokratikoa eta antolakuntzakoa, proiektuak eta izapideak aurrera ateratzeko. Ildo horretan, azpimarratu behar da DHLren jarduera aireportuaren mesederako dela, baina konpainiak alde egitea erabakitzen badu, Gasteiz behera egingo du karga-datuetan, eta beraz, monopolio-mota hori arriskutsua dela.

Bestaldetik, kanpoko inguruneari eta mehatxuei dagokienez, Zaragozaren eskumen zuzena dugu, elementu asko garestitzea (lehengaiak, segurtasuna...), CO2ren isurpenen ondorioz gobernuak beste garraibide batzuei bultzada ematea...

Baina horren aurka eta aireportuak haren etorkizunari begira, aukera asko dituen bere jarduera handitzeko, bai merkataritza elektronikoaren gorakadagatik, bai konpainiek ibilbideak handitu dituztelako, Gasteiz bezalako hiri industrializatu baten aireportua izateagatik, tokiko erakundeen eta estatuko organoen apustua.

8. Proposatutako etorkizuneko plan estrategikoa

Argi dago zein den Forondako aireportuaren jarrera teorikoa bere historia eta gaur egungo aipatutako guztia erreparatzen badugu, horregatik eta ahalik eta etekin handiena ateratzeko, funtsezkoa da AENA, Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta abar bezalako eragileek Plan Estrategiko bat izatea azpiegiturarako.

Plan estrategiko bat erakunde baten epe luzerako zuzendaritza eta helburuak ezartzen dituen dokumentua da. Edozein enpresaren arrakastarako funtsezko tresna da, erakundearen hazkunderako eta garapenerako ikuspegi argia eta koherentea ezartzeko aukera ematen baitu. (Tur-Viñes eta Monserrat-Gauchi, 2014; Rojas, 2000)

Dokumentu hau funtsezko elementu batzuk jaso behar ditu, hala nola, enpresaren xedea eta ikuspegia, epe luzerako helburuak, helburu horiek lortzeko estrategiak, beharrezko baliabideak, ekimen espezifikoak eta arrakasta-adierazleak. Lan puntu honetan eta Forondako aireporturako plan estrategiko bat aurkitzerakoan, informazio publiko gutxi aurkitu dugu, baina, jakina, horrek ez du esan nahi informazio publikorik ez dagoenik.

Nabarmentzekoa da AENAK lau urtean behin argitaratzen duela DORA II izeneko inbertsio-liburuxka (Mitma, 2021), non ikus dezakegun zein diren agenziak aireportu bakoitzerako dituen asmoak.

Forondaren kasuan, kargaren eta bidaiarien hazkundera aurreikusita dago, eta beraz, inbertsioen plana konpontze- eta mantentze-lanena da nagusiki. Baina txosten horretara jotzen badugu, nabarmentzekoa da Bilbo, Santander, Zaragoza... bezalako beste aireportuen inbertsio partida askoz handiagoa dela.

Hori azaltzeko eta lan honen beste hainbat puntu osatzeko Gasteizko aireportuaren zuzendarien taldearekin elkarrizketa bat izan genuen (Eranskinean ikus dezakezue).

Lortu dugun informazio interesgarri guztiaren artean, nabarmentzekoa da aireportua estatu mailan eta nazioartean oso errentagarria den arren, AENAK bidaiarien operazioekin bakarrik lortzen duela errentagarritasuna; izan ere eta esan ziguten bezala, "Europar aire-kargak ez du kotizatzen".

Lan hau egiteko orduan sorpresa bat izan zen guretzat, baina laguntza handikoa izan zen, horrela ulertzen baitugu nola Donostiakoa bezalako aireportuetan inbertsioak handiagoak direla, nahiz eta oso txikia eta mugatua izan eta ez duela zama askorik mugitzen. Alde horretatik, uler dezakegu Forondara doazen inbertsio guztiak ezin izango direla berreskuratu agenziarentzat, karga-operatikoaren ildotik.

Hala ere, inbertsio zenbateko horiek hurrengo urteetan alda daiteke enprekin edo erakundeekin akordioak egiten badira, eta ezin dugu baztertu dokumentu hori hurrengo urteetan aldatzea eta ezusteko proiektu edo hedapenak ematea.

Hasiera batean, planaren eredu hori oso antzekoa da aireportu askorentzat; izan ere, erakundeak horien posizionamenduari eutsi nahi dio, eta aldi berean, Brazil bezalako nazioarteko aireportuetan inbertitzea, haren boterea eta mozkina handitzeko.

Gasteizko Udalaren, Arabako Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan, honen inguruan elkarrekin jarduteko joera dago. Izan ere, azken urteetan alderdi politiko berak, nahiz eta horien artean desberdintasunak egon, horrela egin dute.

Horiek guztiek uste dute Foronda funtsezko azpiegitura dela Euskadirentzat, eta horregatik mantendu eta zaindu egin behar dute, ez hainbeste bidaiarien eremuan, baina kargaren eremuan lurralderako funtsezko potentzia ekonomikoa baita.

Hala ere, tokiko eragile horien asmoa ez da soilik jarduerari eustea, baizik eta datozen hamarkadetan handitzea eta lortu ahal den gehiengo hori aprobetxatzea. Horrela, funtsezkoak izan dira operazio ordutegi osoa berreskuratzeko, kargatzeko konpainiak edo handitze berrien ongietorriaren inguruan...

Lan honetan ere aipatzen den VIAP proiektua etorkizunean aurrera eramatea espero den egitekoetako bat da, nahiz eta zailtasun burokratiko eta legalak izan.

Hala ere, eta une hori iritsi arte, Foronda enpresa berrientzat saltzen eta sustatzen jarraitzea nahi dute, baita edozer hobekuntza edo hedapen egiteko beharrezkoak diren diru-kopuruak eskaintzea ere, hori guztia logikoa denez, AENAK jarraituta.

8.1. Metodologia

Plan estrategiko bat egiteko prozesuan, helburuak eta erakundearen egungo egoera zehatz-mehatz berrikusi behar dira, barruko indarguneak eta ahuleziak eta kanpoko aukerak eta mehatxuak identifikatu behar dira, eta epe luzerako helburuak lortzeko estrategia argi eta zehatz bat zehaztu behar da (Pedros eta Gutierrez, 2012).

Plan estrategikoa ez da dokumentu estatikoa; aitzitik, aldizka berrikusi eta eguneratu behar da, erakundea arrakastarako bide egokian dagoela eta enpresa-inguruneke aldaketetara egokitzen dela ziurtatzeko (De Vicuña, 2017).

Dokumentu horiek sendo eta ondo gauzatuak lagundu diezaioke erakundeari lehiakortasunari eusten eta epe luzera hazkunde iraunkorra lortzen. Horietako baten diseinu egokia egiteko, ezinbestekoa da urrats batzuk jarraitzea: Epe luzerako helburuak identifikatzea, egungo egoeraren azterketa, funtsezko estrategien definizioa, beharrezko ekintzak ezartzea eta emaitzen neurketa (Pinzas, 2009).

Funtsezko urrats horiei jarraituz eta lan honetan aztertutako guztia kontuan hartuta, plan estrategiko bat diseinatuko dugu Forondako aireporturako hurrengo urteetarako.

Hala ere, informazio mota konkretu ugari ez daukagunez eta plan bat ahalik eta modurik errealistago eta egingarrienean diseinatu nahi dugunez, elkarrizketa bat gauzatu egin dugu aireportuko operazio-zuzendariarekin eta DHLko hub logistikoko langile batekin (Begiratu Eranskinak). Horrela eta bibliografia mota jakin batzuetaz baliatuz, faltatzen zitzaizkigun elementuak eta plana burutzeko funtsezko faktoreak eskuratu ditugu.

8.2. Eskuratutako informazioaren analisisia

Orain arte argi geneukana da plan estrategiko bat diseinatu aurreko azterketa bat egitea funtsezkoa dela, eta kontuan hartu behar direla proiektuari edo azpiegitarari eragin diezaioketen egungo eta etorkizuneko faktoreak.

Alde batetik, "Relative efficiency of European airports" artikuluetako datuen azterketa inguratzailearen bidez erakusten den bezala (Pels et al., 2001), Europako aireportuen eraginkortasun-ratioak zehatzuz, badirudi horietako gehienek gero eta errendimendu handiagoak dituztela eskalan. Hori aireportuen eskala-tamaina produktiboenean ere islatzen da.

Bestaldetik, "Size versus efficiency" izeneko AEBetako merkataritza-aireportuen kasuei buruzko ikerketa batean (Bazargan, eta Vasigh, 2003) adierazten da azterketa zabaltzean eraginkorrak ez diren aireportuak identifikatzeko eta beraz, eraginkorragoak diren beste aireportu batzuk direla nagusi.

Estatistika-proba ez-parametrikoez herrialdeko aireportuetako hub-moten artean alde nabarmena dagoela baieztatzen dute, baina azterketa xeheagoak erakusten du zentro txikiak etengabe gainditzen dituztela zentro handienak eraginkortasun erlatiboari dagokionez.

Lan honetan, alde teoriko eta praktikoko guztiak aztertu ondoren, eta plan estrategikoa jorrazteko asmoz, aireportuko langileekin egindako bi elkarrizketetan jasotako datu eta testigantza guztiak aztertuko dugu.

Elkarrizketak operazioen zuzendariarekin eta DHLko Hub-eko langile batekin

Lan hau osatzeko egin ditugun bi elkarrizketen edukian sartuz, azpimarratzekoa da horietako bakoitza modu desberdinetan bideratu dugula.

Lehenik eta behin, AENako operazio-zuzendariarekin hitz egitean, galdetu diogu zamak AENari ematen dion errentagarritasunari buruz (bidaiarien eragiketekin alderatuta), bertan dauden enpresei eta haien jarduerari buruz, aireportuan martxan dauden proiektuei buruz... eta beste gauza askori buruz, errentagarritasun-datu gisa, GRAL hau bideratu ahal izateko.

Bigarrenik, DHLko hub-eko langilearen aldetik, galderak beste alderdi batekoak izan dira, hala nola, garraiatutako salgai mota eta etorkizunerako aurreikuspenak, ekonomian eta karga-operazioek gizartean izan duten eragin zuzena, Ukrainako gerrak Covid19aren krisiak izan zuen bezalako eragina izan ohi duen, enpresaren etorkizuneko planak Forondan...

Bi elkarrizketak lan honen eranskinean egon arren, jasotako puntu garrantzitsuenak azpimarratu behar dira, jarraian proposatuko dugun plan estrategikoa ulertu ahal izateko:

AENak Forondan dituen eragiketen zuzendariaren aldetik, azpimarragarriena da zamak ez diola errentagarritasunik ematen agentziari; izan ere, haren arabera, "kargak ez du Europako kotizatzen", horregatik, inbertsioei dagokienez, bidaiari gehien dituzten aireportuak dira nagusi, bertatik ateratzen baita errentagarritasuna. Aitorpen honekin askoz errazagoa da DORA II txostena edo agentziaren erabakiekin lotutako beste gai batzuk ulertzea.

Azaldu zigun, halaber, AENA dela aireportuko gastuak ordaintzen dituen, eta karga-enpresek horiek dauden lurzuengatik bakarrik ordaintzen dutela, eta horiek nahiko merkeak direla Jundiz bezalako poligonoekin alderatuta.

Oro har, karga-enpresak eta, batez ere, DHL enpresak oso pozik daude aireportuan; izan ere, ordaindu beharreko tasak oso baxuak dira, Foronda III. taldekoa baita. Horrekin batera, operazioak egiteko denbora oso murriztua da, aireportuko ezaugarriak eta bidaiari operazio gutxi daudelako (ez da ia denbora galtzen). Horretaz gain, aireportuaren egungo MIPaz eta bere egoeraz galdetu genion.

Nabe oso espezializatua dela eta laborategizat hartzen dela esan zigun, material oso hauskorra eta arriskutsua mugitzen delako, gaur egun ez dagoelako aktibo neurri handi batean Europako araudia betetzen ez duelako, baina etorkizunean beste bat instalatzeko lanean ari dira, oso garestia izan arren eta oso lan serioa.

VIAP bezalako etorkizuneko proiektu edo zabalpenei dagokienez, hori guztia egiteko benetako eskaria egon behar dela esan zigun. Karga-plataforma bat zabaltzeak 5 milioi euroko kostua izan dezake, beraz, ez da errentagarria aireportua gutxienez edukieraren %93ra ez badago.

Etorkizunean aireportuan zabaltzeak eta hobekuntzak egitea aurreikusten du, baina VIAPen proiektua egitea ia ezinezkoa da; izan ere, kokatuta dagoen eremuan urak har dezakeen eremua da eta ez dago benetako eskaririk.

Lehenengo Eranskinean ikusi dezakegun bezala, gure plan estrategikoa proposatzerako orduan kontuan hartu beharreko gauzarik garrantzitsuena zein diren galdetu genion.

Forondako DHLko hub-eko langilearen aldetik, azpimarratu behar dugu merkataritza elektronikoak pisu handia duen arren, beste motatako mugimenduak egiten direla egunero; izan ere, paketeria orokorra, ehunak, prentsa, galkorrak, animalia biziak (badago, pollitoen trafikoa), automobilgintza, erabilera medikorako material erradioaktiboa barne hartzen duen salgaia arriskutsua... ere mugitzen dira.

Automobilgintzari dagokionez, aukera handia da Mercedes eta bestelako empresa handientzat, "overnight" zerbitzuarekin enpresek piezak eta ordezeko piezak jasotzen baitituzte, biltegiratu beharrik gabe. Haren arabera, karga-konpainien eragina oso onuragarria da gizartearentzat enplegua sortzen delako, azpikontratutako garraio-zerbitzuak, zerbitzu iragankorrak...

Ukrainako gerrari dagokionez, esan digu ez duela eragin zuzenik izan, globala baizik, esportazioetan eragiten baitu zuzenean, eta, batez ere, erregaien igoeran. Amaitzeko, hurrengo urteetan DHLk Forondarako duen plana eta helburua zamaketari gehiago egitea eta ontzi-flota handitzea dela azpimarratu zigun, baita DHLren beste instalazio batzuetan zinta hautatzaileak instalatzea ere.

Era berean, enpresaren mundu mailako helburuetako bat "zero igorpeneko helburua" dela aipatu dut. 2050. urterako, DHLren estrategia da zero emisio sortzea ingurumenean, erregai berrietan, furgoneta elektrikoetan..., oro har, langile guztiei "green" ziurtagiriak ematea, lan honetan DHLren kapituluan aipatu den zerbait.

Puntu honetara iritsita, eta orain arte lortutako puntu garrantzitsuenak azpimarratu ondoren, plan estrategikorako gure proposamena egingo dugu.

Horren abiapuntua, lan hau egiten genuen bitartean, AENAK martxoan iragarritako inbertsio berri bat izango da (Ortega, 2023).


8.3 Foronda-Gasteiz aireporturako Plan Estrategikoa

Foronda, hamarkada batean izan diren inbertsiorik handiena jasoko du, 16 milioi eurokoa eta urte eta erdiko epea izango duten hainbat erreforma egiteko (Ortega, 2023).

Lan horien artean, zabaldegiko zoladura suhiltzaileen eraikinaren aurrean egokitzea, bideak hobetzea eta DHLren nabearen aurrean arrapala agenteen taldeentzako gune berri bat sortzea.

Baina proiektuak barne hartzen dituen beste esparru horien artean nabarmendu behar da plataformetako hormigoizko lauza batzuk (bidaiariarenak zein kargakoak) ordeztuko direla, aireontzien geltokien konfigurazioa nabarmen aldatzeko eta aerodromoaren etorkizuneko beharretara egokitzeko (Beguiratu Irudia).

8.3. Irudia: Karga-plataformaren etorkizuneko birmoldaketaren planoak



Iturria: Vitoriaenconstrucción, 2023

Irudian ikus dezakegunez, karga-plataformak 12 aparkaleku izaten jarraituko du, baina antolaketa berri bat izango du, eta tamaina handiagoko hegazkinak ere sartuko dira. Azpimarratu behar da espazioaren antolaketa berri honekin hegazkinak ezin izango direla postuetatik irten, baizik eta “pushback” gisa ezagutzen diren ibilgailuen beharra izango dutela. Orain arte ez da beharrezkoa Forondan, baina aztertzen ari diren arrapalako agenteen lizentzien lehiaketa aurreikusten du.

Inbertsio horrek eta plataformaren birmoldaketak aukera fisikoa ematen dio aireportuari bere plataforma DHLren hub-etik zabaltzeko, zalantzarik gabe eta etorkizunari begira AENAREN maniobra oso ona dela hausnartzen dugu.

Guretzat, inbertsioetarako partida hori kontuan hartu beharrezkoa da Forondako plan estrategikorako; izan ere, aireportua hegoalderantz fisikoki zabaltzeko aukera ematez gain, dagoeneko ezagutzen den potentziala indartzeko aukera ere ematen du. Hauxe da GRAL-a amaitzeko hurrengo hitzetan sakonduko dugun gako.

Aireportua orokorrean zabalduz gero, eragiketa-zuzendariak esan zigun plan zuzentzaile bat dagoela, plan estrategiko baten antzekoa, baina kasu honetan inguruko finketan oinarritzen dena.

Horrek adierazten du, beharrezkoa izanez gero, aireportua handitzeko aukera dagoela, inguruko lurak bi norabidetan hartuz, bai N-1 edo N-622 autobia norabideetara. Beraz, dokumentu horrek aukera ematen du aireportuaren jardura indartu dezaketen parke industrial edo poligono gisako proiektuei bide emateko.

Azpiegitura bat zabaltzearen ideia jardura areagotzearen seinale den arren, ez da beti hala, eta Foronda kasu perfektua dela uste dugu. Lan honetan egindako analisi guztia eta alde desberdinei egindako elkarrizketak kontuan hartuta, Forondako operazioak igotzeko giltza ez dagoela oraingoz beren zabaltze fisikoan pentsatzen dugu.

Nahiz eta aireportuan zehar garraiatutako karga-datuak apartekoak izan eta urtero handitzen doazen, aireportuaren edukiera orduko 20 operazioetatik urrun daude oraindik.

Karga-sailetik azaldu dutenez, asmoa da operatiba handitzea, bide berriak, hegazkin handiagoak eta beste zerbitzu mota batzuk erabiliz, eta hori aurrerapauso eta helburu bat izango litzateke etorkizuneko zabalkuntzak proposatu aurretik.

Ildo horretatik, duela hilabete batzuk tokiko hainbat egunkarik argitaratu zuten bezala, DHLko enpresak konponketetarako hangar bat proiektatzen du bere hub-etik gertu.

Horrek enplegua emango luke eta, zalantzarik gabe, balio berri bat gehituko lioke Forondako aireportuko operatibari, Alemaniako enpresaren eta aireportuen kudeatzailearen arteko negoziazioek zutik jarraitzen dute eta seguruenik proiektua plataforma egokitzeko lanak amaitutakoan aurrera eramango da.

Aipatutako MIP gure aireportuaren beste elementu bat da. Foronda krisi ekonomikoaren aurretik, Barajaseko aireportuarekin batera, Espainiako arrantza-produktuak airez sartzeko kanal nagusia zen (Marcos eta Sansa, 2007; Fernandez et al., 2012). Aireportu horiek gainera, arrantza-produktuaren jatorrizko eremuan eta aireko garraioan modu osagarrian espezializatuta zeuden.

Hala, Gasteizko Aireportuak Afrikatik etorritako arrantza-produktuak deskargatzen zituen gehienbat, eta Barajaseko Aireportuak, berriz, Hegoamerikatik etorritako produktuak deskargatzen ditu gehienbat sotoan.

Nabarmentzekoa da Gasteizko aireportuak malgutasun handiagoa zuela, Barajaseko aireportuarekin alderatuta, arrantza-produktuaren harreraren, deskargaren eta birbidalketaren kudeaketan, arrazoi hauengatik:

- Alde batetik, Gasteizko aireportuan (salgaietarako bakarrik) arrain freskoak lehentasuna zuelako, Barajaseko aireportuan ez bezala, bertan bidaiarien lehentasuna baita (lan honetan azaldutako faktore osos garrantzitsua).
- Bestaldetik, MIP (Mugako Ikuskapen Puntua) kudeatzen zutelako, 9.500 m²-ko biltegiak tenperatura-kontrolarekin, eguneko 24 orduetan zerbitzua ematen zuena, eta ez Barajaseko aireportua.

Horregatik, ahaleginak egin beharko liriteke horrelako instalazioak erabili nahi dituzten eragileen eskaria identifikatu eta aurkitzeko, Forondako operatiba bultzatu eta zabal baitezake. Orain arte, Decoexsa bezalako enpresek instalazio berdinak epe laburrean irekitzeko eta erabiltzeko negoziazioak egin dituzte (Arroyo, 2017).

Lehen esan dugun bezala, etorkizuneko epe luzerako operazioak eskaeraren arabera handitu ahal izango balira, aireportuak handitu egin behar izateraino, plataforma edo aipatutako VIAP zabaltzeko proiektuak berreskuratu eta bultzatu beharko genituzke (Chavarri, 2021).

Gasteiz Industrial Air Park ekimenak industria eta logistika garapena sustatu nahi du eta aireportuaren inguruan kokatuko litzateke. Proiektuaren asmoa da enpresa-parke estrategiko bat sortzea, jarduera ekonomikoa sustatzeko eta eskualdean enplegua sortzeko dagoen aireportu-azpiegitura aprobetxatuz. Helburu nagusia logistikarekin, garraioarekin eta industria aeroespazialarekin lotutako inbertsioak eta enpresak erakartzea da.

Hala ere, hainbat arrazoi daude 13 urte baino gehiago igaro ondoren proiektu hau aurrera ez eramateko. Laburbilduz, proiektua sortzeko beharrezkoak diren erakundeak eta eragile guztiak ezin izan dira ados jarri, erositako lurzoruak eduki arren.

Horrekin batera, azpimarratu behar da industrializatu nahi den eremua Zaia ibaiak urpean har dezakeela, eta, beraz, oinarri horretatik abiatuta, nahiko zaila dela eremu hori egokitzea, bai administratiboki, bai juridikoki.

Bestalde, eta aurreko kapituluetan esan bezala, Aenak jada argitaratu zuen VIAPen ordezkari aukera bat zona frankoa izan arren, gune horrek ez duela eskari errealik, eta, beraz, etorkizunik gabeko beste proiektu bat izango zela.

Horregatik, aipatutako ZEE eredu bat diseinatzea egokiena litzateke, nazioartean ezagunak diren ereduak baitira, eta izan daitezkeen proiektuak baino zentzu eta errentagarritasun handiagoa baitute, hala nola zona frankoa, garatzeko askoz konplexuagoa delako eta gure lurretan erabilgarritasunik ez izatera hel daiteke.

Eredu hori pixka bat gehiago garatuz, aireportutik gertu kokatuko litzateke baina aireportuko esparruan egon gabe eta zerbitzu eta abantaila ugari eskainiko lituzke bertan instalatzen diren enpresentzat.

Instalazio horietara sarbide zuzena izango dute, hala nola lurreratzeko pista eta karga-terminala, eta horrek salgaien garraioaren logistika erraztuko du.

Gainera, eredu berri hau azpiegitura modernoa izango luke (gaur egungo VIAP, proiektua ez bezala), industria-nabeak eta bulegoak eraikitzeko espazioak, eta enpresentzako laguntza-zerbitzuak, hala nola segurtasuna, telekomunikazioak eta zerbitzu publikoak.

